

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

### IDAZKARITZA NAGUSIA

**Foru Gobernu Kontseiluak 2020ko uztailaren 14ko ohiko bilkuran onartutako ebazpen laburpena**

– **Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua:**

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 9/2020 Zerga premiazko araugintzako dekretua, uztailaren 14koa. Onestea Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren aldaketa, zerga arloan informazioa automatikoki eta nahitaez trukatzeari buruzkoa, komunikatu eta jakinarazi behar diren mugaz gaindiko mekanismoei dagokienez.

– **Erabakiak:**

ENPLEGU, MERKATARITZA ETATURISMO SUSTAPENAREN  
ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 307/2020 Erabakia, uztailaren 14koa. Onespena ematea klimatizazio instalazioak mantentzeko zerbitzua prozedura ireki bidez kontratatzeko espedienteari, 256.132,80 euroko gehieneko aurrekontuarekin (BEZa barne), eta 2021eko urtarrilaren 1etik 2022ko abenduaren 31ra arteko gauzatze epearekin.

Foru Gobernu Kontseiluaren 308/2020 Erabakia, uztailaren 14koa. Onestea COVID-19ak sortutako inbertsioei aurre egiteko ezohiko laguntzen deialdia turismoaren sektoreko ETE eta autonomoentzat.

Foru Gobernu Kontseiluaren 309/2020 Erabakia, uztailaren 14koa. Onestea Arabako turismoaren sektoreko irabazteko xederik gabeko erakundeetan COVID-19ak sortutako inbertsioei aurre egiteko ezohiko laguntzen deialdia.

Foru Gobernu Kontseiluaren 310/2020 Erabakia, uztailaren 14koa. Onestea COVID-19ak Arabako merkataritza sektorean 2020ko ekitaldian sortutako inbertsioei aurre egiteko ezohiko laguntzen deialdia.

Foru Gobernu Kontseiluaren 311/2020 Erabakia, uztailaren 14koa. Onestea COVID-19ak Arabako merkataritza sektorean 2020ko ekitaldian sortutako jarduera gastuei aurre egiteko ezohiko laguntzen deialdia.

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 312/2020 Erabakia, uztailaren 14koa. Behin betiko onestea Lapuebla de Labarcako udalerriko ondasun higiezinaren gaineko zergari lotutako lurzorua eta hiri ondasun higiezinaren balioztapen txostena.

Foru Gobernu Kontseiluaren 313/2020 Erabakia, uztailaren 14koa. Behin betiko onestea Zalduondoko udalerriko ondasun higiezinaren gaineko zergari lotutako lurzorua eta hiri ondasun higiezinaren balioztapen txostena.

Foru Gobernu Kontseiluaren 314/2020 Erabakia, uztailaren 14koa. Onestea Arabako Lurralde Historikoko 2019ko kontu orokorra onesteko foru arau proiektua, eta Arabako Batzar Nagusietara bidaltzea, izapidetu dadin.

Foru Gobernu Kontseiluaren 315/2020 Erabakia, uztailaren 14koa. Onestea "Viveros Eskalmendi SL" enpresari esleitzea Arratzua-Ubarrundiako Eskalmendiko mintegiaren alokairu kontratua.

Foru Gobernu Kontseiluaren 316/2020 Erabakia, uztailaren 14koa. Onespena ematea Elizbarrutiko Apeztegiaren esparruaren barrualdean dauden lurren erabilera Gasteizko Udalari lagatzeari.

Foru Gobernu Kontseiluaren 317/2020 Erabakia, uztailaren 14koa. Onestea zenbait aurrekontu aldaketarako espedienteak, Covid-19aren ondorioak direla eta A Plana, Arabako Ekonomia Suspertzeko Planari buruzkoak.

#### LURRALDE OREKAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 318/2020 Erabakia, uztailaren 14koa. Onestea beste hitzarmen bat egitea Gorbeialdeko Partzuergoarekin, zeinean jasoko baita 2020ko uztailaren 16tik 2023ko abenduaren 31ra artean aisialdirako tokiko parke hauetan dauden edukiontzietako zaborra biltzeko lanen kudeaketa esleipena: Ostuño, Zabalain, Sorgimendi, Marixeka eta Jugatxi.

#### LURRALDE OREKAREN SAILA ETA KULTURA ETA KIROL SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 319/2020 Erabakia, uztailaren 14koa. Onestea 2019/2020 ikasturtean batxilergoko, erdi edo goi mailako prestakuntza zikloetako ikasketak egin dituzten eta bizi diren udalerritik beste batera joan behar duten ikasle gazteei garraiorako dirulaguntzak emateko deialdia.

#### BIDE AZPIEGITUREN ETA MUGIKORTASUNAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 320/2020 Erabakia, uztailaren 14koa. Api Movilidad SA enpresari esleitzea "Bide segurtasuna hobetzea foru sareko errepideetan. 2020-2021eko prebentzio eta arintze jardunak" izeneko lanak 571.120,00 euroan, BEZa barne, eta gauzatzeko 9 hilabeteko epearekin.

#### GIZARTE POLITIKEN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 321/2020 Erabakia, uztailaren 14koa. Onestea Laudion adingabeentzako eguneko zentro bat funtzionarazteko Laudioko Udalarekin izenpetutako lankidetzaren hitzarmena.

Foru Gobernu Kontseiluaren 322/2020 Erabakia, uztailaren 14koa. Onestea etxebizitza komunitario bat kudeatu eta mantentzeko Asparreneko Udalarekin sinatutako lankidetzaren hitzarmena.

#### NEKAZARITZA SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 323/2020 Erabakia, uztailaren 14koa. Onestea abere arrazak hobetzeko, animalien osasunerako, animalia ekoizpenerako eta ustiatzei elikadura segurtasunari eta ekonomia kudeaketari buruzko orientabide zerbitzua emateko programak kudeatzeko abeltzaintza laguntzen 2020ko deialdia.

Foru Gobernu Kontseiluaren 324/2020 Erabakia, uztailaren 14koa. Baiestea eraldaketarako nekazaritza sozietate batek abenduaren 27ko 860/2019 Erabakiaren aurka jarritako berraztertze errekurtsoa. Erabaki horren bidez, ebazpena eman zitzaion Arabako Lurralde Historikoan muga naturalak eta berezko beste muga batzuk dituzten zonetan dauden nekazaritza ustiatzei erako Euskal Autonomia Erkidegoko landa garapenerako 2015-2020 programaren esparruan ematen diren laguntzen 2019ko deialdiari.

Foru Gobernu Kontseiluaren 325/2020 Erabakia, uztailaren 14koa. Baiestea sozietate zibil batek abenduaren 27ko 860/2019 Erabakiaren aurka jarritako berraztertze errekurtsoa. Erabaki horren bidez, ebazpena eman zitzaion Arabako Lurralde Historikoan muga naturalak eta berezko beste muga batzuk dituzten zonetan dauden nekazaritza ustiatzei erako Euskal Autonomia Erkidegoko landa garapenerako 2015-2020 planaren esparruan ematen diren laguntzen deialdiari.

Foru Gobernu Kontseiluaren 326/2020 Erabakia, uztailaren 14koa. Baiestea sozietate mugatu batek abenduaren 27ko 861/2019 Erabakiaren aurka jarritako berraztertzeko errekurtsua. Erabaki horren bidez, ebazpena eman zitzaion nekazaritza-ingurumen eta klima arloko laguntzen eta nekazaritza ekologikorako laguntzen deialdiari.

Foru Gobernu Kontseiluaren 327/2020 Erabakia, uztailaren 14koa. Onestea Arabako Basogintza Elkartearekin izenpetutako hitzarmena 2020rako luzatzea.

#### KULTURA ETA KIROL SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 328/2020 Erabakia, uztailaren 14koa. Onestea Gazteriaren Foru Erakundean 2020rako ordainsariak ehuneko 2 igotzea, 2019koen aldean.

Foru Gobernu Kontseiluaren 329/2020 Erabakia, uztailaren 14koa. Onestea 2019/2020 kanpian eskola kiroleko programan jasotzen diren jardueretan parte hartzeko dirulaguntzen deialdia.

#### INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 330/2020 Erabakia, uztailaren 14koa. Onestea lankidetzarako protokolo bat izenpetzea Energiaren Euskal Erakundearekin, energia berriztagarrien aprobetxamendurako proiektuak sustatu eta garatzeko Arabako Lurralde Historikoan.